

INGURUKO TOPONIMIAZ ZENBAIT BURUTAZIO



daztera noan honek ez du oinarri zientifiko zehatzik, ez horixe! Zenbait leku izenek berekin duten atzizki baten errekkurrentziak eragindako burutazio eta galderen papereratzea baino ez da.

Egiteko dagoen herriko toponimiaren azterketa beharrezko horren harian zenbait ohar mahairatu nahi nituzke hizkuntzaren alderditik begiratzuz batez ere, baina hizkuntzaz kanpoko diren eta zenbait argi ekar dezaketen bestelako datuak ere ahortzi gabe.

Gatozen bada harira. Bidasoa-Oiartzun inguru honetako toponimiari begiratzuz -ezagunenari, jakina, ni ez bainaiz haratago iristen-, bada errekkurrentea den, behin eta berriz agertzen den atzizki bat: -UN(E), -GUN(E) /-KUN(E) alegia. Atzizki honen esanahia aski argia da, lekua esan nahi baitu, bai "g" dun aldaeran, bai gabekoan. Beraz, atzizki honen esanahitik abiatuz zenbait toponimoren inguruan gogoeta egingo dugu eta hipotesitxo batzuk ere emango ditugu. Argienetatik edo ustez argienak diren etatik hasiko gara:

URUNE > UNE - Bistan da UR-UNE dela jatorria, zein lekuri dagokion erreparatzuz gero gainera indar handiagoa hartzen du etimo horrek. Dudarik gabe, euriteen ondotik beti ura pilatzen den tokia da inguru hori, egun ere bai.

SASKUNA - ZASKUN - Ene ustez toponimo hau sahats - sarats - saats eta -gunek osatzen dute, ondoren mugatzailea ezarri gainera. Hau da, saats + -gune + a. "Ts" txistukari afrikatuak eta "g" leherkari ahostunak elkarri eragiten diote lehena frikari bihurtuz eta bigarrena ahoskabetuz. Beharbada, honen antzekoa dateke IZASKUN bera ere. Isats > isas + -gun(e). Isatsa erdarazko "Retama" izango litzateke.

EZKURIN- Egun herriak "Izkulin" erabiltzen du, eta aldaera gehiago ere baditu izen honek: "Eskulain", "Izkulin"... baina jatorria EZKUR + UN(E) * dela esango nuke. Ezkurra harizkiek (haritza, ametza...) ematen duten bihiari edo aleari esaten zaio. Izan honi dagokion tokia Jaizkibelgo punturik altuena da gutxi gora behera, eta antza denez Jaizkibel mendia garai batean haritzez eta ametez jositako tokia zen, beraz, ez zaio batere gaizki heldu izen hori. Agian zuhaitzik gehienak galdu ondotik, leku horretan basotxoren bat geldituko zen, eta hortik letorkioke izena.

(*) "Ezkur - un"etik "Ezkurin"era igarotzeko gerta zitekeen kontsonante sudurkariak, "n" k, aurreko bokala itxiaraztea, "u"tik "i"ra alegia.

ALLERRU- Leku izen honen zalantza gehiago eragiten du. Izan ere, "ll" soinu horrek gaskoieratik ere eduki bailezake zeozer, eta horiek ur handiak dira guretzat. Halarik ere, hipotesitxo bat ematen ausartuko naiz. AIÑAR-AIAR + UN(E) - AIER + UN(E)

Lehenengo bidetik abiatuz "Aiñar" hitza dugu oinarrian txillar edo iñar esan nahi duena. Mitxelenak hipotesi hori eman zuen "aier"en jatorria azaltzeko. Honen arabera txillar edo iñar asko dagoen lekua esan nahi du. Bigarren esanahi bat ere izan lezake "aier" horrek belar iharra edo lur harritsua. Aier > aller bihur zitekeen "yeismo" izenez ezagutzen dugun gertaera edo fenomenoaren hiperkorrekzioz. Alegia, "ayer" esaten entzungo zuten garaiko jendeek, eta oker esana zegoela pentsatuz "aller" hartu bide zuten zuzentzat. Beraz, "aller" nondik heldu den badugu, baina ondoko "u" horretaz zer esan? Ondoko "u" hori -UN(E)ren "u" hori bera dela esango nuke eta toponimoa agian noizbait ere ALLERRUN zela ere egingo nuke. Gerora, bukaerako "n" hori "inesibotzat" interpretatua gertatu zitekeen, hau da, NON? galderaren erantzun gisa eta ondorioz "Allerru" bezala gelditu.

OIARTZUN- Ez da erabat argia honen jatorria. Osagai argi bat badu, Oi(h)ar alegia, oihana edo basoa esan nahi duelarik, baina gure hipotesitxoari indar emateko "Oiarrrun" balitz hobe. Halarik ere, gure bailaran behin eta berriz entzuten dugun "Oarso" edo "Oiarso" horri helduz, ondorioren batera ailega gintezke. Mitxelenak, bere Apellidos Vascos (1973) liburuan Oihenarten "Not. de las dos Vasconias"eko aipamen bat egiten digu honela diolarik: "los vascos expresan por la palabra Oiarzo un objeto o un paraje silvestre". Beraz, izan liteke OIARZO + UN, baina izen honek ere aldi berean galderak pizten dizkigu, "oiar-zu" bere horretan ere badela basoa ugari den ingurunea, eta -un(e) horren beharrik ez lukeela. Tira! utz dezagun horretan argi gehiago etor dakigun arte *. Dena den, komeni litzateke "Oarso"ren aipamentxo bat ere egitea OIARTZUN beraren latindartzetik baitetorke, erdal hiltun haien interpretaziotik hain zuzen ere. Oiartzun > Oiarzun > Oiarsum (akusatiboko bukaerarekin nahastea). Erromantzerako bidean akusatiboko gainerako hitzek izan duten bilakaera bera izan duela dirudi. Oiarsum > Oiarso eta gero hortik Oarso.

(*) Lapurdin badugu gainera antzeko beste kasu bat, LOHIZUN(E). Hemen ere Lohi + zu + un(e) dugu, lohi handia dagoen tokia.

LINTZIRIN- Gure inguru honetan lintzura edo lintzira esaten zaio aintzirari. Gainera, aidanez, egun izen hori duen tokian aintzira zen garai batean, hartara gure ustea indartuz. Beraz, LINTZURA + UN(E) > LINTZURUN-LINTZIRUN. Zen gertatzen da, ordea, lehen izen horretako bi "u" horiekin? Eta zer, bigarren horretako "u" horrekin? Lehenengokoen kasuan zail gertatzen da fenomenoaren asimilazio hutsez azaltzea, baina litekeena da, izan ere, bigarren "u" hori sudurkariaren eraginez itxi zitekeen, eta tarteko "u" hori beste "i" horien eraginez asimilatu. Bigarren aukera horretarako ere asimilazio bera hartu beharko genuke kontuan.

LARRUN- Hau ere inguruko mendi baten izena dugu, baina honen kasuan ilun gelditzen da jatorria, ene ustez bi izan baitaitezke: LARR(E) + ON > LARRON Kontsonante sudurkariaren eraginez o > u -LARRUN. Eta beste aukera LARR(E) + UN(E) larrea dagoen tokia.

Bukatzeko aipa dezagun IRUNen kasua. Irun izena ez da batere argia, baina beste zenbait toponimori begiratzuz gero argi pixka bat sortzen da. Irun izena nondik heldu

den aztertzean, jatorri bat baino gehiago etortzen dira gogora. Izan liteke I(H)I + UN(E) ihia (erdarazko junco) dagoen tokia, eta honek baluke loturarik hango Amabirjinaren elizarekin, delako Amabirjinaren irudia ihi artean agertu omen zen-eta. Halere, ez naiz ni jatorri honen oso aldeko, eta beste jatorri honi sinesgarriago deritzot; IRI+ UNE, hiria, ziudadea dagoen tokia. Antza denez erromatarrek bazuten asentamenturik bertan, gero eta argiago omen dago puntu hori eta gure inguru honetan garai hartako giza bilgunerik garrantzitsuena izan zitekeen, harresiz inguratutako bizitokia. Homen haritik kontuan hartu behar ere dugu euskaldunon hiri nagusia zen IRUÑEA ere jatorri berekoa izan litekeela, arrazoi handiagoz, inguruko herrixka eta baserri-etxaldeetatik salerosketara joaten zirenentzat iri-unea zen hori, harresiz inguratua. Euskal Herrian beraz, bat baino gehiago dira iri-uneak: Iruñea, Irun, Iruña Oka...

1995EKO URRIA
JOXE LUIX AGIRRETXE

- Michelena, Luis, 1961, *Fonética Histórica Vasca* Donostia, Diputación Foral de Guipúzcoa, (1977)
- Michelena , Luis 1973, *Apellidos Vascos* Donostia, Txertoa. (Pág. 135)